



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

Organoa edo batzordea: Osoko bilkura.

Bilera-mota: ohikoa.

Eguna: 2014/03/26.

Ordua: Hasiera, 19:30.

Tokia: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa.

Bertaratuak:

Kepa Urzelai Goitia, Bildu.

Sagrario Etxabe Lasa, Bildu.

Amaia Solanas Arzituño, Bildu.

Lourdes Ugarte Garrido, Bildu.

Igor Urrate Ugarte, Bildu.

Aitor Uribeetxeberria Bidegain, Bildu.

Raquel Puente Iurtia, Bildu.

Javier Iraeta, EAJ.

Ane Urkiola Alustiza, EAJ

Aitor Madina Murua, EAJ.

Oscar Valbuena Pascual, PSE-EE.

Arantza Arizmendi, Hamaikabat.

Fernando Arakama Fernandez, kontu-hartzailea

Iñaki Gastañares Sanchez, Idazkaria.

Ezin etorria adierazi du:

Roberto Alonso Yebra, PSE-EE.

Aztergaiak, esan-eginak eta erabakiak:

1. Bidezkoa bada, joan den 2014-02-26ko akta onartzea.

Iradokizunik eta argibiderik gabe, akta aretoan dauden batzarkide guztien aho batez onartu da.

GIZARTE ZERBITZUAK:

2. Bidezkoa bada, 2014an Gizarte Zerbitzuen arloan eskainiko diren diru-laguntza deialdiko oinarri espezifikoak onartzea.

Lourdes Ugarte zinegotziak hartu du hitza eta Gizarte Zerbitzuen batzordearen aldeko irizpena irakurri du.

Aurten oinarriak prestatzean genero berdintasuna aintzat hartu dela adierazi du. Bestetik, idazkariak aipatu oinarriak berrikusi ditu eta EAJ taldeko ordezkariak batzordean planteatu zuen zalantza argitu du; beraz, oinarriak onartzeko aldeko botoa ematea espero duela esan du.

Azalpen horien ondoren, proposamena erabakitzeko botoetara jo eta aho batez onartu da.



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

EUSKARA:

3. Bidezkoa bada, 2014an Euskara arloan eskainiko diren diru-laguntza deialdiko oinarri espezifikoak onartzea.

Sagrario Etxabe zinegotziak hartu du hitza eta batzordearen aldeko irizpena irakurri du. Diruz lagunduko diren atal desberdinak eta bakoitzerako onartu diren diru-kopuruak adierazi ditu. Pozgarria da merkataritzako diru-laguntza eskariek gora egin dutela ikustea eta, horregatik, aurtan igo egin da eskainitako diru-kopurua. Baina bestetik, euskara ikasteko diru-laguntzen eskariek behera egin dute; hala ere, zuhur jokatu nahi dugu eta, horregatik mantendu egin da partidaren zenbatekoa.

Azalpen horien ondoren, proposamena erabakitzeke botoetara jo eta aho batez onartu da.

ALKATETZA:

4. PSE taldearen mozioa 2013ko Foru Funtsaren kitapenari buruzkoa.

Oscar Valbuena zinegotziak PSE-EE taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Aipatu mozioa akta honi erantsi zaio.

Ane Urkiola zinegotziak hartu du hitza EAJ taldearen izenean eta mozioaren lehenengo lerraldian Finantzen Euskal Kontseiluan akordio bat adostu zela aitortzen dela esan du; beraz, ez da Bildu eta EAJ taldeen arteko akordio bat Valbuena jaunak publikoki esan duen bezala. Finantzen Euskal Kontseiluan ez dago PSE taldea ordezkaturik herriak hala nahi izan duelako. Valbuena jaunak Gipuzkoa kaltetuta atera dela esan du baina hori ez da horrela izan eta mozioaren lehenengo lerraldian argi adierazten da Eusko Jaurlaritzak 7,2 milioi ematen dizkiola Gipuzkoari eta diru hori Eusko Jaurlaritzak jarri du herrialdearen interesei lehentasuna emanez. Esan beharra dago, bestalde, indarrean dagoen Ekarpeneen Legearen arabera Gipuzkoari ez zegokiola diru-kopuru hori baina horrela onartu zen guztion arteko akordioa lortu ahal izateko eta balantzeen eguneraketan zeuden ezadostasunak gainditzeko. Batzuk jarrera konstruktiboekin herria egin nahi duten bitartean, beste batzuk, PSE adibidez, erakundeen arteko konfrontazioa bilatzen dute.

Udal Finantzaketarako Foru Funtse negatiboa izan zen PSE taldea gobernuan egon zenean. Funtse hori diru-bilketaren mende dago zuzen-zuzenean eta ez da Aldundiko gobernuak aurreikusi duena izan.

Hain zuzen ere, Ekarpeneen Legearen seigarren Xedapen Gehigarria aplikatzea izan da egin dena, hau da, aho batez erabaki zen diru-sarrera guztiak sartzea, opor fiskalen salbuespenak eta balantzeen eguneraketak kontuan hartu gabe. Eta hori horrela egin zen sistema bere globaltasunean eraginkorra izan dadin eta Gipuzkoarako eta Arabarako 10 milioiko ekarpena adostuta.

Azken finean, Finantzen Euskal Kontseiluak egin duena PSE eta Bildu taldeek Gipuzkoako



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

Batzar Nagusietan adostu zuten akordioa betetzea izan da eta, modu horretan, EAJ, Bildu eta PP taldeen arteko akordio politikoa lortu da, Euskadiko interesentzako ona den akordioa. Baina PSE taldeak ez du akordio hori gustuko ez duelako borondate politikorik erakusten eta herriaren interesen alde arazoak gainditzeko jarrera konstruktiborik ez duelako.

Alkate jaunak hartu du hitza eta, hasteko, PSE taldeak aurkeztu dituen bi mozioak gaztelaniaz bakarrik aurkeztu dituela esan du. Hori ez dator bat Euskararen alde Udalak aho batez onartu zuen Adierazpen Institutuzionalean jasotakoarekin eta, beraz, PSE taldeari idatziak euskaraz edo, gutxienez bi hizkuntzatan, aurkez ditzala eskatu dio.

Mozioari dagokionez, PSE taldeak duen kokapen erosoaren isla dela esan du, erakunde ia guztietatik kanpo dagoelako. Finantzen Euskal Kontseiluaren akordioa ona da Gipuzkoarako; negoziazioan lortu den batz bestekoaren adierazpena da eta Gipuzkoako udalerriek Aldundira 14 milioi itzuli beharrean 5,6 milioi bakarrik itzuliko dute. Legazpiren kasuan, akordio horri esker udaletxeko kutxatik 85.000,00 € gutxiago itzuli beharko da eta hori ona da. Mozioaren 4. puntuari dagokionez, Aldundia dagoeneko udaletxe guztiei jakinarazi die dirua itzultzeko egon daitezkeen aukera desberdinak. Beraz, esandakoagatik, Bildu taldeak mozioaren kontrako botoa emango duela iragarri du, lortu den akordioa Legazpirako onuragarria delako.

Oscar Valbuena zinegotziak hartu du hitza eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako Ebazpenaren lehenengo puntuan hain zuzen ere, Sozietateen gaineko zergarekin salbuespen bat egitea eskatzen zen, Urkiola andreak baieztatu duenaren kontra. Batzar Nagusietako Ebazpenak diru-sarreraren tratamenduak aparteko izaera izan zezala eskatzen zuen. Eskaera horren helburua Ekarpenen Legearen eragina arintzea zen; izan ere, eragin hori desberdina da hiru lurraldetan Sozietateen gaineko zergaren bilketa desberdina delako. Horregatik planteatzen dira beste formula batzuk eta horien artean Gipuzkoako Aldundiarena zegoen, kaltetuta ez irteteko. Egia da negoziazioak ondorio negatiboa arindu duela baina ez da nahikoa eta Gipuzkoa kaltetuta atera da. Ez du balio Bizkaia salbuestea eta ordaintzea dagokiona ordaintzetik libre uztea eta Eusko Jaurlaritzako baliabideak erabiltzea okerrago atera dena konpen-tsatzeko. Horregatik, Finantzen Euskal Kontseiluak hartu duen formula ez onartzea eta Ekarpenen Legea berritzeari buruz debatea sortzea eskatzen da, lurraldeen arteko desorekak egon ez daitezen.

PSE taldea udaletxeetan eta Legebiltzarrean dago eta akordio bat egokia ez dela ikusten badu kritikatzeko legezkatuta dagoela uste du. PSE taldea koherentziaz kritikatzeko du akordioa, Bizkaian PSE taldea dagoen udaletan ongi atera diren arren. Ekarpenen Legea berritu egingo da eta horrek esan nahi du legeak desberdintasunak sortzen dituela sozietateen gaineko zergaren eraginez eta kaltetuta beti Gipuzkoa ateratzen da. Horregatik planteatu da formula hori errefusatzea.

Ane Urkiola zinegotziak, erantzunez, Finantzen Euskal Kontseiluaren akordioaren arabera diru-sarrerara guztiak hartuko direla kontuan esan du, salbuespenik gabe eta hori PSE taldeak Gipuzkoan Bildu taldearekin adostutakoaren kontra baldin badao, Bilduri eskatu beharko dizkio azalpenak baina Finantzen Euskal Kontseiluaren akordioa horrela da. Egun dugun eredu instituzionala ez da diru-bilketan oinarritutako eredu, errentan eta barne-produktu gordinean oinarritutako banaketa-eredua baizik eta hori arautzeko eta kudeatzeko foru-autonomia dugu. Finantzen Euskal Kontseiluaren baitan ari dira lanean Ekarpenen legea berritzeko. Lege hori



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

oso berezia da eta hura berritzea neketsua izango da. Patxi Lopezen gobernuak ere aldatzea aurreikusi zuen eta lege-egutegi bat egin zuen baina ez zuen bete. Horregatik orain barregura ematen dio PSE taldeak lege hori aldatzearen gaineko debatea hasi nahi duela esatea.

Egungo Eusko Jaurlaritzak 2014ko lehenengo seihilekoan Ekarpenen Legea hobetzea du aurreikusita eta dagoenean hori lortzeko lanean ari da.

Oscar Valbuena zinegotziak lurraldeen artean desorekak daudela esan du eta horren arrazoia Sozietateen gaineko zergaren bilketan dago. Zerga horiek lurraldeko zergak izan beharko lirateke eta gero modu desberdin batean banatu, orain Finantzen Euskal Erakundean egin den bezala, Gipuzkoa kaltetuta atera ez dadin. Patxi Lopezen gobernuak ezin izan zuen legea aldatu Finantzen Euskal fondoan zegoen boto-banaketarengatik.

Azalpen horien ondoren, mozioa erabakitzeke botoetara jo eta ez da onartu emaitza honekin: kontrako 10 boto (Bildu eta EAJ) eta aldeko 2 boto (PSE eta Hamaikabat).

5.- PSE taldearen mozioa Euskal Udal Legeari Buruzkoa.

Oscar Valbuena zinegotziak PSE-EE taldeak aurkeztu duen mozioa irakurri du. Aipatu mozioa akta honi erantsi zaio.

Arantza Arizmendi zinegotziak hartu du hitza eta Hamaikabat taldearen izenean aldeko botoa emango duela esan du. 30 urte igaro dira eta udal legea onartzeko nahiko denbora egon dela uste du.

Javier Iraetak hartu du hitza EAJ taldearen izenean. Mozioan esan denari dagokionez, PSE taldeari legea ondo irakur dezala eta alarrik sor ez dezala eskatu dio ez baita egia 20.000 biztanle baino gutxiago duten udalerririk desagertzera doazenik. EAJ-PNV udal taldeak bere alderdiak Madrilen egin duen lana azpimarratu nahi du. Lan horren ondorioz, 27/2013 legeak euskal tokiko erregimenari dagozkion eskubide historikoen singularitasuna jaso dezala lortu da, horretarako foru erregimena eguneratzen duten hiru xedapen gehigarri sartuz. Xedapen horien arabera, euskal tokiko erregimena zehaztea lortzen da, solaskideak euskal erakundeak izanik eta ez ministerioak eta tokiko eskumen-eremua erabakitzeke euskal esparrura baldintzatuta geratuz. Euskal tokiko eremuaren berezitasun historikoak eta udalerrien finantza-babesaren mendeko gaien berezitasuna babestuta geratzen dira, horiek denak foru Aldundien eskumenekoak direlako; gauza bera Tokiko Korporazioetako kideen ordainsariei dagokienez.

Legebiltzarreko EAJ-PNV taldeak Madrilen egin duen lanari esker, aurreko urteetan ez bezala, orain aukera handia dago hiru maila instituzionalen tratamendua integratuagoa, eraginkorragoa eta egingarriagoa izan dadin, kanpoko interferentziarik gabe. Orain inoiz baino egoera hobeto gaude gure herrialdeko maila instituzional desberdinak lotzeko. Orain egin behar den lana euskal instituzioen multzoa elkarrekin hobeto lotzeko markoa sortzeko aukera bultzatzea da. Herritarrei zor diegu hori.



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

Alkate jaunak hartu du hitza eta Bildu taldeak mozioaren aldeko botoa emango duela iragarri du. Hala ere, lege horrek Estatutik inposatu nahi den ereduari erantzuten diola uste dute; lege horrek tratu berdina ematen die udalerrri guztiei, haien egoera ekonomikoa kontuan hartu gabe eta hori ez litzateke horrela izan behar. Bestalde, PSE taldeari eusko jaurlaritzan egon zenean ez zela udal legea aurrera ateratzeko gai izan leporatzen dio eta orain EAJ taldea horretarako gai izatea espero du.

Oscar Valbuena zinegotziak gogora ekarri du PSE taldeak Gobernu Kontseiluan Udal Legearen proiektu bat onartu zuela eta Eusko Legebiltzarrerara eraman zuela.

Legea irakurri dutela esan du eta EAJ taldeari foraltasuna salbatuz xedapen gehigarri horiek lortu izanagatik poztea leporatzen dio, horrek ez duelako esan nahi legeak Estatuko gainerako udalerrietan eragin negatiboa ez duenik eta horrek elkertasunik eza erakusten du. Legeari aldeko botoa ematean Legazpi edo mankomunitateko herriek eduki ditzaketen eskumenak galtzea bultzatzen ari da, mankomunitateak dituen berezko eskumenak barne (berdintasuna edo turismoa).

EAJ taldeari mankomunitateko udalerriek izan ditzaketen eskumen galtzearen edo udal autonomiaren murrizketaren erantzule egingo den galdetzen dio eta udal legearen zirriborroa aurkez dadila eskatzen du, 27/2013 legearen aurrean aterpe txiki bat izateko.

Javier Iraeta zinegotziak, erantzunez, PP taldeak gehiengoa duenez legea berdin-berdin onartuko zela ekarri du gogora. Horren aurrean EAJ taldeak negoziatu egin du eta Euskadirako gauzak lortu ditu. Gaur egun oraindik udal lege bat ez baldin badugu, denon errua da, baita PSE taldearena ere eta 2014ko lehenengo seihilekoan udal legearen zirriborroa aurkezteko konpromisoa dagoela esan du. Horretarako, Eusko Jaurlaritza bihar Aldundiekin eta Eudelekin elkartuko da eta baliteke gaia moteltzea baina Udalei ekarpenak egitea eskatuko zaielako eta hori da PSE taldeak bere mozioan eskatzen duena. Eskumenak kentzearen aurka daude baina izango diren eskumenek behar bezainbesteko finantzazioa izatea nahi dute.

Oscar Valbuena zinegotziak biharko bileraren berri baduela esan du baina jakin duenez Eusko Jaurlaritzak ez du proposamen zehatzik eraman behar, hau da, ez du lanean hasteko zirriborrorik eraman behar.

Azalpen horien ondoren, mozioa erabakitzeko botoetara jo eta 9 aldeko botoekin (Bildu, PSE eta Hamaikabat) eta aurkako 3 botoekin (EAJ) onartu da.

6. Luzatu diren dekretuen berri ematea.

Azkeneko ohiko bilkuratik hona luzatu diren dekretuen berri eman da.

7. Eskariak eta galderak.

Javier Iraeta zinegotziak hartu du hitza eta Komunikazio batzordearen azkeneko aktan,



**UDAL-KORPORAZIOAREN
OSOKO BILKURAREN
AKTA**

2014/03/26

martxoaren 20an herritarrei aurrekontuaren eta kitapenaren berri emango zitzaiela jaso zela adierazi du. Harrituta irakurri zuen hori, gai horren berri Ogasun batzordean oraindik eman ez delako eta Ogasun batzordeari herritarrei baino lehenago informatu behar zaiola uste du. Batzordea errespetatzea eskatu du.

Alkate jaunak gai hori Bozeramaileen batzordean argitu zuela erantzun du. Egun hori gaizki zegoen, herritarrei martxoaren 31n emango baitzaie horren berri.

Alkateak, arratsaldeko 20:40ak direnean, amaitutzat eman du bilkura eta aztertu den guztia eta hartutako akordioak jasota gera daitezen akta hau egin dut eta nik, idazkariak, bertan jasotakoaren fede ematen dut.

Akta hau 2014ko apirilaren 29an egindako bileran onartu zen:

- bere osotasunean, inolako aldaketarik gabe.
- baina egun honetako bileraren aktan jasotzen dira egin ziren aldaketak.

Iñaki Gastañares Sánchez
Idazkaria

Kepa Urzelai Goitia
Alkatea